Hondarribiko Udala

**Esptea.: 2024PLEN0009**
**Erref.: GU /** AEL

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIAK 2024KO IRAILAREN 3AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hogeita lauko irailaren hiruan Udaletxe honetako Batzar Aretoan Udalbatza bildu da Igor Enparan Araneta jaun **alkate-udalburuaren** lehendakaritzapean, eta ondoren aipatzen diren **udalkideak** partaide direla:

**Alkateordeak:**
Estitxu Urtizberea Sorzabal and.
Garoa Lekuona Izeta and.
Guadalupe Queiruga Oronoz and.
Josu Peña Alza jna.
Ortzi Alonso Murelaga jna.

**eta zinegotziak:**

Aitzol Arroyo Tumas jna.
Tamara Yaoska Sastre Castillo and.
Gonzalo Carrión Insausti jna.
María Serrano Olascoaga and
Juan Luis Silanes Aguirre jna.
Ainhoa Martinez Arrieta and.
Ander Ribes Lazcanotegui jna.
Alaitz Zabala Zarauz and.
Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jna.
Koldobika Rodriguez Akarregi jna.

Ezin etorria adierazi du: Maria Noemi Odriozola Pascual andreak.

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa burutu dute arratsaldeko seietan, Gorka Urgoiti Agirre Udal idazkari jauna lagun nautela.

Bilkura hasi ondoren, ondoko zerrendan agertzen den puntu bakarreko gaia aztertu da:

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE HONDARRIBIA EL DIA 3 DE SEPTIEMBRE DE 2024.**

En la Ciudad de Hondarribia a tres de septiembre de dos mil veinticuatro se constituye el Ayuntamiento Pleno en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **alcalde-presidente**, D. Igor Enparan Araneta, y con la asistencia de los/as **tenientes de alcalde Sres./as.:**

Dª Estitxu Urtizberea Sorzabal.
Dª Garoa Lekuona Izeta.
Dª Guadalupe Queiruga Oronoz.
D. Josu Peña Alza.
D. Ortzi Alonso Murelaga.

**y de los concejales y las concejalas Sres./as.:**

D. Aitzol Arroyo Tumas.
Dª Tamara Yaoska Sastre Castillo.
D. Gonzalo Carrión Insausti.
Dª María Serrano Olascoaga
D. Juan Luis Silanes Aguirre.
Dª Ainhoa Martinez Arrieta.
D. Ander Ribes Lazcanotegui.
Dª Alaitz Zabala Zarauz.
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui.
D. Koldobika Rodriguez Akarregi.

Ha justificado su ausencia: Dª Maria Noemi Odriozola Pascual.

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las dieciocho horas, asistidos/as de mí, el Sr secretario, D. Gorka Urgoiti Agirre.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar el siguiente único punto del orden del día:

ESKU21aba925-05f9-4536-88ab-82e38f67c4b1

**HIRI ETA LURRALDE ANTOLAKETA BATZORDEA**

**PUNTU BAKARRA.- SAN NIKOLAS BALUARTEAN DAGOEN BARATZEA EROSTEA PROPOSATZEA, VILLA MENDIA FINKAN DAGOENA.**

San Nikolas Baluartean dagoen baratzea erostea proposatzeari dagokion espedientea aztertu ondoren, Villa Mendia finkan dagoena.

Hiri eta Lurralde Antolaketa batzordearen 2024ko uztailaren 18ko eta abuztuaren 29ko diktamenak ikusi ondoren.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza ondorengoa da:

Aldeko botoak: 16, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) eta EH Bildu (2).

Horren ondorioz, **Udalbatzak,** bertaratutakoen aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

**LEHENENGO.-**San Nikolas Baluartean dagoen baratzea erostea 182.520 euroren truke, Uria Harresia kalearekiko paraleloan dagoen horma dagoela egiaztatu ondoren.

**BIGARREN.-** Alkate jaunari Zuzenbidez dagokion ahalmenik handiena ematea aipatutako erabaki hori betearazteko eta erosketaren eskritura publikoa sinatzeko, bai eta higiezina Jabetza Erregistroan inskribatzeko beharrezkoak diren gainerako izapideak egiteko ere.

**HIRUGARREN.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

Akordioaren inguruko interbentzioak:

**ALKATE JAUNA:** Arratsalde on berriz. Lehen 17:30ean izan dugu bilera laburra eta orain ezohiko Udalbatza deialdia genuenez, irailaren hiruan (…) ezohiko Udalbatza deitu dut. Nire nahia zen uztailean egitea, baina tramite administratiboek dituzten konplexutasunek atzeratu egin dute prozedura hau, ba gaur arte. Eta lehenengo eta behin eskertu nahiko nuke udalkide guztiok egindako ahalegina gaurko egunez hemen egoteagatik. Izan

**COMISIÓN DE ORDENACIÓN URBANA Y TERRITORIAL**

**PUNTO ÚNICO.-PROPUESTA DE ADQUISICIÓN DE LA HUERTA SITA EN EL BALUARTE DE SAN NICOLÁS, EN LA FINCA VILLA MENDIA.**

Examinado el expediente relativo a la propuesta de adquisición de la huerta sita en el Baluarte de San Nicolás, en la finca Villa Mendia.

Vistos los dictámenes de la Comisión de Ordenación Urbana y Territorial de 18 de julio y 29 de agosto de 2024.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es el siguiente:

Votos a favor: 16, Abotsanitz (7), EAJ-PNV (6), PSE-EE-PSOE (1) y EH Bildu (2).

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad de los presentes, **ACUERDA:**

**PRIMERO.-**Adquirir la huerta sita en el Baluarte de San Nicolás por 182.520 euros, una vez comprobada la existencia del muro paralelo a Uria Harresia kalea.

**SEGUNDO.-** Facultar al Sr. Alcalde tan ampliamente como sea preciso en Derecho para la ejecución del citado acuerdo y la firma de la escritura pública de aquisición, así como los demás trámites necesarios para la inscripción del inmueble en el Registro de la Propiedad.

**TERCERO.-** Notificar el presente acuerdo a los interesados.

Intervenciones en relación al acuerdo:

**EL SR ALCALDE:** Buenas tardes otra vez. Antes hemos tenido una reunión breve a las 17:30 y ahora que teníamos una convocatoria de Pleno extraordinario, el día tres de septiembre (...) he convocado un Pleno extraordinario. Mi deseo era hacerlo en julio, pero la complejidad de los trámites administrativos ha retrasado este procedimiento hasta hoy. Y lo primero que me gustaría agradecer es el esfuerzo de todos/as los/las

ESKU21aba925-05f9-4536-88ab-82e38f67c4b1

ere, hemen egotea garrantzitsua da gaiak berak merezi duelako, hau da, puntu bakarreko gai zerrenda honetan San Nikolas Baluartearen, edo San Nikolas Baluartean dagoen baratzea erostea proposatzen da. Eta zergatik da garrantzitsua?Ba, urte askotako lanketaren emaitza gaur loratzen ikusten dugun hau, eta horregatik da garrantzitsua. Gutako asko Udalera iritsi aurretik ere saiakera batzuk izan ziren, baina aurten egindako lanketa ugarik eman dute aspaldiko nahi baten emaitza.

corporativos/as por estar aquí en el día de hoy. Y es que estar aquí es importante porque el tema en sí lo merece, es decir, en este orden del día de un solo punto se propone comprar la huerta que hay en el Baluarte de San Nikolas o el Baluarte que hay en San Nikolas.¿Y por qué es importante?Pues esto que hoy vemos florecer es resultado de muchos años de trabajo, y por eso es importante. Antes de que muchos/as de nosotros/as llegaran al Ayuntamiento ya hubo algunos intentos, pero los numerosos trabajos realizados este año han dado el resultado de un viejo deseo.

Udal Gobernu talde honen helburua zen, agintaldi planean jasota agertzen baita, Alde Zaharrean herriarentzako eraiki ahal izango diren espazioak bilatzea. Eta espazio horietako bat, dudarik gabe, San Nikolas Baluartearen baratzea eskuratzearekin lotuta dago. Baina San Nikolas Baluartearen baratzea ez da baratze bat soilik; Udal arkitekto eta Udal arkeologo andreen txostenek garbi erakusten dute baratze horrek ezinbestean lotura duela Hondarribiko harresiarekin. Eta Hondarribiko harresia noski balio patrimonial handiko eremua dugu; ondare babesa duen monumentu historiko-artistiko izendapenarekin, Hondarribiko hirigune historikoko gune arkeologikoaren deklarazioaren barne ere badagoena.

El objetivo de este Equipo de Gobierno municipal, que figura recogido en el plan de mandato, era buscar espacios que se puedan construir para el pueblo en la Parte Vieja. Y uno de esos espacios, sin duda, está relacionado con la adquisición de la huerta del Baluarte de San Nikolas. Pero la huerta del Baluarte de San Nikolás no es sólo una huerta; los informes de las Sras arquitecta y arqueóloga municipales demuestran que esta huerta está inevitablemente relacionada con la muralla de Hondarribia. Y la muralla de Hondarribia, por supuesto, pertenece a una zona de gran valor patrimonial; declarada monumento histórico-artístico protegido patrimonialmente, incluida en la declaración de zona arqueológica del Casco Histórico de Hondarribia.

Harresiaren parte da San Nikolas Kuboa, XVI. mendean eraikitako ondarea dugu, eta garaiko harresi zatien eta San Nikolas Kuboaren aztarnak kontserbatuta topatuko direla uste dugu. Beraz, potentzial arkeologiko eta historiko handikoa da.

El Cubo de San Nikolas forma parte de la muralla, es un patrimonio construido en el siglo XVI, y creemos que se conservarán los restos de muralla de la época y del Cubo de San Nikolas. Se trata, por tanto, de un gran potencial arqueológico e histórico.

Esku pribatuetan dagoen lursail hau erosteko negoziaketak ugariak izan dira jabekidearekin, eta esker ona adierazi nahi dut jabekideak ondare patrimonialeko lursail hauek udal ondare izateko erakutsi duen prestutasunagatik.

Las negociaciones con el copropietario para la adquisición de este terreno en manos privadas han sido numerosas y quiero expresar mi agradecimiento por la disposición mostrada por el copropietario a que estos terrenos de patrimonio patrimonial sean patrimonio municipal.

Udal teknikarien aldeko txostenak jaso dituzue, Hiri eta Lurralde Antolamendurako batzordearen aldeko irizpena ere jaso zen eta honela, San Nikolas Baluartearen baratzea 182.520 euroko baliopean erostea da proposatzen duguna. Norbaitek zerbait esateko nahia baldin badu?

Habéis recibido los informes favorables de los/las técnicos/as municipales, también dictamen favorable de la Comisión de Ordenación Urbana y Territorial, y así, proponemos la compra de la huerta del Baluarte de San Nikolas por un valor de 182.520 euros ¿Si alguien quiere decir algo?

ESKU21aba925-05f9-4536-88ab-82e38f67c4b1

**CARRION JAUNA:** Mila esker. Gure aldetik, gure taldetik begi onez ikusten dugu erosketa hau, pozgarria da. Aipatu duzun moduan urtetan daramagu negoziaketetan, lur sail hau eta etxearen zati bat erosteko tramiteetan, eta aurreko urtean aukera galdu genuen partida ez zegoelako hau erosteko, eta aurten berreskuratu dugu aukera hau, bad gure aldetikan begi onez ikusten dugu. Saiakera ez dadin hemen geratu, nahiko genuke saiakera hori luzatzea eta lantzea batez ere San Nikolas eta Uria Harresiko bi lursail horiek elkartzeko behingoz. Eta hor izango genuke harresiko gurpila ia buelta guztia. Ez dakit ikusiko dugun talde guztiek, baina hemendik animatzen dizuet jarraitzeko eta gu hemendikan laguntzeko. Mila esker.

**EL SR CARRIÓN:** Muchas gracias. Por nuestra parte, desde nuestro grupo vemos con buenos ojos esta compra, es una satisfacción. Como has comentado, llevamos años negociando, tramitando la compra de este terreno y parte de la casa, y el año anterior perdimos la oportunidad de comprar porque no había partida, y este año hemos recuperado esta posibilidad, por lo que la vemos con buenos ojos. Para que el intento no se quede aquí, nos gustaría que ese intento se prolongara y se trabajara sobre todo para unir de una vez por todas esos dos terrenos de San Nikolas y Uria Harresia. Y ahí tendríamos la rueda de la muralla, casi toda la vuelta. No sé si lo veremos todos los grupos, pero desde aquí os animo a que sigáis y nosotros/as colaboraremos. Gracias.

**ALKATE JAUNA:** Alderdi Sozialistaren izenean, EH Bilduren izenean? Ba, eskerrik asko (…) Hirigintza batzordeko irizpenean ez dut ikusi dokumentuan adierazitako zerbait eta agian bai Udal idazkariari eskatuko nioke gaurko onarpen honek, balioaz aparte, baita ere zer suposatzen duenaren argipen bat egitea ba legearen araberakoa, uste dut ez dagoela jasota eta argipen hau uste dut udal ordezkari guztiok merezi dugula.

**EL SR ALCALDE:** ¿Por el Partido Socialista, por EH Bildu? Pues gracias (...) En el dictamen de la Comisión de Urbanismo no he visto algo recogido en el documento y tal vez sí pediría al Sr secretario del Ayuntamiento que hiciera una aclaración de lo que supone esta aprobación de hoy, aparte de su valor, también según la ley, creo que no está recogido y creo que esta aclaración la merecemos todos/as los/as representantes municipales.

**IDAZKARI JAUNA:** Arratsalde on. Hemen jaso den irizpenean, jaso den proposamenean, Udalbatzak akordioa hartzen du, baina falta dira gainontzeko tramiteak, eta Toki Erakundeen Legearen arabera, akordioa gauzatzeko egin beharreko tramite guztiak alkate jaunak egin behar ditu legeak esaten duelako, eta irizpenean jaso behar izan zelako bere momentuan.

**EL SR SECRETARIO:** Buenas tardes. En el dictamen aquí recibido, en la propuesta, el Pleno adopta el acuerdo, pero faltan el resto de trámites, y según la Ley de Entidades Locales, todos los trámites necesarios para su materialización deben ser realizados por el Sr alcalde porque lo dicta la ley, y porque en su momento hubo de recogerse en el dictamen.

**ALKATE JAUNA:** Argi geratzen da? Beraz, bozketara pasako gara? Aldeko bozkak?Aho batez onartu da, beraz, eskerrik asko egindako esfortzuagatik eta jarraituko dugu lanean Hondarribiaren alde. Mila esker guztioi.

**EL SR ALCALDE:** ¿Queda claro? ¿Así que pasamos a la votación? ¿Votos a favor? Se ha aprobado por unanimidad, así que gracias por el esfuerzo realizado y seguiremos trabajando por Hondarribia. Gracias a todos/as.

**Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du arratsaldeko seiak eta bostean neuk ziurtatzen dudan akta hau eginez. Elektronikoki sinatutako agiria.**

**Y no habiendo más asuntos que tratar, la presidencia levantó la sesión a las dieciocho horas y cinco minutos, extendiéndose esta acta que certifico. Documento firmado electrónicamente.**

**OE/ Vº Bº**
**Alkatea/ El alcalde**
**Igor Enparan Araneta**

**Gorka Urgoiti Agirre**



EKS | CSV: ESKU21aba925-05f9-4536-88ab-82e38f67c4b1
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610*